

**AMORE EMAN DU EUSKO JAURLARITZAK ENPLEGU-
ESKUMENEN TRANSFERENTZIAN ETA AUTOGOBERNUAREN
BABESEAN**

ELA

2005EKO AZAROAK 8

Enplegu-politika aktiboak transferitzeko negoziazio-prozesuan dabilta elkarrekin Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako gobernuaren. Prozesu horretan sartzen da Eusko Legebiltzarrak onartutako ez-legezko proposamena. EAJ, EA, EB-IU, PSE-EE eta PPK proposamenaren alde bozkatu zuten; EHAK eta Aralarrek, berriz, abstentziora jo zuten.

Etengabeko liskarbide izan dituzte enplegu-politikak (aktiboak eta pasiboak) Espainiako gobernuak eta EAEko erakundeek. Orain arte, baldintza jakin batzuk bete arte transferentziak ez onartzea izan da EAEko agintarien jokabidea. Bat etorri da ELA jarrera horrekin. Horrez gain, behin eta berriro aldarrikatu du ELAk Euskal Herriaren esku egon behar dutela lan- eta gizarte-alorretako eskumenek (enplegu-politika aktiboak eta pasiboak barne direla), eta enplegu-zerbitzu eta langabezia-prestazio integralak eman behar lituzketela.

Martxan diren negoziatioek eta Eusko Legebiltzarrak onartutako proposamenak hausnarketa egitera bultzatu gaituzte, EAEko erakundeen jarrera-aldaketa zerk eragin ote duen aztertzea. Horrekin batera, gure jarrera azaldu nahi dugu egoera berria dela eta. Horretarako prestatu dugu txosten hau.

5. Enplegu-politika aktiboak eta pasiboak

Lehenik eta behin, argitu dezagun zer diren enplegu-politika aktiboak eta pasiboak.

Enplegu-politika aktiboak hauek dira: enplegu bila dabilenari lanpostu bat eskuratzen laguntzen diotenak. Horretarako, lan-merkatuan bitartekaritza egiten zaio bilatzaileari (enplegu-eskaintzen berri ematen zaio, langabeen egoera aztertzen da...). Era berean, lanerako gaitasuna hobetzen ere laguntzen zaio (enplegu-orientazioa ematen zaio, etengabeko prestakuntza eta lanerako prestakuntza, enplegu-programak, trebakuntza-enplegua...). Horrekin batera, lan-merkatura biltzeko zailtasun handieneko giza taldeentzako hainbat neurri ere bultzatzen dituzte enplegu-politika aktiboek (kotizazio sozialen murrizketa, batik bat). Hona hemen enplegu-politika aktiboen alderdirik esanguratsuenak:

- Bitartekaritza lan-merkatuan (erregistroa, merkaturaren aztertzea, eskaintza eta eskaria elkarrekin uztartzea...).
- Informazioa, orientazioa eta enplegu-bilaketa (norberari egokitutako ibilbideak).
- Lanerako trebakuntza (langabezia daudenei ematen zaien prestakuntza).
- Etengabeko prestakuntza (lanean ari direnei ematen zaien trebakuntza).
- Enpresei ematen zaizkien laguntzak.

Enplegu-politika pasiboak, berriz, langabezia-prestazioak dira (kotizaziopekoak eta kotizaziorik gabekoak). Laburbilduz:

- Kotizaziopeko prestazioak.
- Kotizaziorik gabeko prestazioak (laguntza-prestazioak).

Bai politika aktiboek bai pasiboek dituzte diru-sarrerak eta gastuak. Transferentziarik egiten bada, hari dagozkion gastuak eta sarrerak eskuratu behar ditu eskumenen hartzailak. Aipatutako politika aktibo eta pasiboen bereizgarria da kotizazio sozialen bidez finantzatzen dela baten eta bestearen zati handi bat. Zehazki, hauek dira horrela finantzatzen diren alderdiak:

- Prestakuntza-kotizazioak (% 0,42 etengabeko prestakuntzarako izaten da).
- Langabezia-kotizazioak.

6. Politika aktibo eta pasiboen bilakaera

Aldaketa handiak izan dira azken urteotan politika pasibo eta aktiboek dagokien araudian. Estatu espainiar osoan aplikatu dira erabaki horiek guztiak. Izan ere, Estatuak dauzka gai honen eskumenak, eta hark hartzen ditu erabakiak. Denak aipatuko ez baditugu ere, hona hemen aldaketa aipagarrienak:

- Murrizketak langabezia-prestazioetan.- 1980eko hamarkadaz geroztik, hainbat bidetatik egin dizkiete murrizketak langabezia-prestazioei (prestazioak jasotzeko kotizatu beharreko epea handitzea, jaso beharreko zenbatekoa gutxitzea...).
- Bitartekaritzaren kudeaketa publikoari uko egitea.- Hainbat aldetari esker, Aldi Baterako Laneko Enpresak (ABLEak), enplegu-agentziak eta beste zenbait erakunde hedatu dira.
- Autonomia-erkidegoei transferitzea politika aktiboen kudeaketa.- Autonomia-erkidego guztiei transferitu zaie politika aktiboen kudeaketa, EAE, Ceuta eta Melillari izan ezik.
- Politika aktibo eta pasiboak zentralizatzea.- Transferentziekin batera, hainbat erabaki ere etorri ziren; besteak beste, Enplegu Legea (2002), elkarrizketa sozialeko prozesuen emaitza. Eskumen hauek uzten dizkio Legeak Estatuari: enplegu-politikaren planifikazioa eta koordinazioa, bitartekaritza eta lanbideratzeari dagozkion araudiak eta legeak egitea, lanerako eta etengabeko prestakuntza, eta langabezia-prestazioen kudeaketa. Bestalde, Enplegu Sistema Nazionala sortu zen. Erabaki zen, bestetik, Estatuaren zerbitzupeko enplegu-politiken finantziarioa langabezia-kuoten bidez egitea. Autonomia-erkidegoetako zerbitzuak, aldiz, ezin dira iturri horretatik finantzatu. Argi erakutsi dute neurri horiek Estatuak hartzen dituela politika aktiboek buruzko erabakiak. Halaber, legez erabakita dago politika pasiboak ez zaizkiela autonomia-erkidegoei transferituko.
- Etengabeko prestakuntza eta Hobetuz.- Espainiako gobernuak ez dio EAERI transferitu etengabeko prestakuntza, ezta aintzat hartu ere ELA, LAB, UGT eta CCOOek Confebask-ekin sinatutako lanbidearteko hitzarmena. Estatu espainiarrean, gobernuaren eta CEOE, CCOO eta UGTren arteko hitzarmenak bidea itxi dio etengabeko prestakuntza autonomia-erkidegoei transferitzeari. Alabaina, erakunde horien guztiek ez dute inongo eragozpenik izan elkarren artean kudeatzeko etengabeko prestakuntza estatu espainiarrean.
- Espainiako enplegu-politikak, elkarrizketa sozialeko prozesuetara.- Espainian, enplegu-politika aktibo zein pasiboetako hainbat gai sarri

aztertzen dituzte elkarrizketa sozialeko prozesuetan. Bada prozesu horietan funtsezko hitzarmen bat Espainiako gobernuaren eta CCOO, UGT eta CEOEren artean gai horien transferentzia ez onartzeko, baita gai horiek euren artean kudeatzeko ere. Berrikitan, Espainiako gobernuak proposatu du irabazi asmodun enplegu-agentzia pribatuak baimentzea, eta lan-erreforma mahaian ari dira gaia aztertzen.

7. Gogora dezagun Eusko Jaurlaritzaren jarrera enplegu-politika aktibo eta pasiboak direla eta

Bi alderdi azpimarratuko genituzke EAEko aginte publikoek (Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra) enplegu-politika aktibo eta pasiboekiko aspaldi duten jarrerari dagokionez:

- Eskumenak eskatzea, baina ez nolana. - Atal honetan sar daiteke politika aktiboetan erabakimena izateko eskaria, edo kotizazio sozialen kudeaketaren transferentziarena. Hala, Transferentzietan buruzko zenbait Txosten onartu izan dira (1992an, Eusko Jaurlaritzak; 1993an, Eusko Legebiltzarrak).
- Politika aktiboak eta pasiboak multzo berean eskatzea, bereizi gabe. - Zer oso bat dira enplegu-politikak, eta, bai ikuspegi politikotik bai kudeaketaren eraginkortasunetik begiratuta, osotasun hori gorde egin behar da. Ez dago onartzerik politiken bereizketa.

Transferentziarik ezak eta enplegu-politikei ere aplikatu zaizkien irizpide zentralizatzaileek eraginda, EAEko aginte publikoek hainbat aldarrikapen egin dituzte azkenaldi honetan. Hona hemen aipagarrienak:

- Transferitu gabeko eskumenak bere kabuz eskuratzea EAEk (Ibarretxe lehendakariaren proposamena).
- Enplegu-politikari dagozkion eskumen legegile guztiak eskatzea (Eusko Legebiltzarrak hainbat bider egindako eskaria).

Ereduari dagokionez, estatu espainiarrekoaren bidetik jo zuen Eusko Jaurlaritzak Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zuenean: jende gutxi lanerako, ordainketak erakunde publiko eta pribatuei bitartekaritza-lanak egin ditzaten, lanerako trebakuntza... ELAk ez zuen onartu erakunde horren eredia, enplegu-zerbitzu integrala izateko bidetik ez baitzebil.

8. Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako gobernuaren arteko negoziazioa, eta azaroaren 4an Eusko Legebiltzarrak onartutako ez-legezko proposamena

Enplegu-politika aktiboen transferentziari buruz elkarrekin negoziatzen ari dira Eusko Jaurlaritza eta Espainiako gobernuak. Negoziatio-prozesu hori dela eta, Jaurlaritzak ez dio ELAri jakinarazi zer ari den gertatzen. Kazetarien zenbait informazio edo Jaurlaritzako zenbait kideren adierazpenak aipatu izan dizkiegunean, berriz, Eusko Jaurlaritzak ukatu egin digu gai horretaz serio

hitz egiten ari direnik. Alabaina, negoziazio-prozesua oso aurreratuta dabilela diote hainbat datuk.

PPk aurkeztutako ez-legezko proposamen bati transakzio-zuzenketa aurkeztu zion Hirukoak (EAJ, EA eta EB-IU). Hirukoaren, PPren eta PSE-EEren botoekin egin zuen aurrera zuzenketa.

Esku artean ditugun datuek eta Legebiltzarraren ebazpenak adierazten digutenez, goitik behera aldatu da EAEko aginte publikoen jarrera gai honekiko. Hona hemen aldaketa horren ezaugarri nagusiak:

- Onartu egiten da politika aktiboak eta pasiboak bereiztea.- Enplegu-politika aktiboak bakarrik dituzte hizpide negoziatioetan. Azaroaren 4an onartutako ez-legezko proposamenak "enplegu-politika aktiboak ahalik eta azkarren transferitzea" eskatzen du. Bestalde, inondik ere ez dira berariaz aipatzen politika pasiboak ("Indarrean segitzen dute Autonomia Estatuaren 18.2 b) artikulua eta bosgarren xedapenak, zeinak aintzatesten dion EAeri Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa kudeatzeko eskumena", hori besterik ez). Gai horri dagokionez, guztiz ezberdinak izan dira alde baten eta bestearen jarrera politikoak. Horrenbestez, ezin da inolaz ere baieztatu hortik politika pasiboen transferentzia etorriko denik.
- Erabakitzeko ahalmenik gabe transferituko lirateke enplegu-politika aktiboak.- Espainian bultzatu diren politika zentralizatzailea (batetik) eta lan-merkatuan bitartekari diharduten enpresa eta irabazi asmodun erakundeen ugaltzea (bestetik) direla medio, Espainian erabakitzen dena aplikatzen jarraitu beharko da EAEn.
- Ez da aplikatuko Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa, eta Espainiako gobernuak urtez urte erabakitzen duenaren menpe izango da haren finantziarioa.- Azaroan onartutako ez-legezko proposamenak ez du aipatzen Kontzertu Ekonomikoaren erregimena aplikatu behar denik. Erregimen hori aplikatzeak hau ekarriko luke: transferitutako eskumenen kotizazioak kudeatzea (trebakuntza-kuotak, etengabeko prestakuntzari eta lanerako trebakuntzari dagokienez). Kontua, ordea, formula anbiguo honekin 'konpondu' dute: "Kontzertuaren metodologia bera erabiliko da hura kalkulatzeko". Horrenbestez, ez da bermatzen ezta urtero EAEn kobratzen diren kuoten deskontua ere. Beraz, litekeena da urtez urte Espainiako gobernuak hartzen duen aurrekontu-erabakiaren menpe egon behar izatea, etengabeko prestakuntzaren alorrean bezala.

5. ELAren jarrera

Enplegu-politika aktibo eta pasiboen transferentzia etengabe aldarrikatu izan du ELAk, betiere politika horietan eragiteko ahalmena eta dagokion aurrekontua ere tartean direla.

Berretsi egiten du ELAk bere eskaria, hau da, irizpide hauen arabera egin behar da politika aktibo eta pasiboen transferentzia:

- Politika horiei buruz erabakitzeko ahalmena behar da

- Politika horiei dagozkien diru-sarrerak eta gasatuak kudeatzeko ahalmena behar da
- Ez dira bereizi behar enplegu-politika aktiboak eta pasiboak.

Eskatzen dugu, halaber, Enplegu Zerbitzu Integrala sortzea. Zerbitzu horren esku izan behar lukete enplegu-politika guztiek (aktiboek eta pasiboek).

Arbuiatu egiten du ELAk enplegu-politikaren alorrean Eusko Jaurlaritzak egindako aldaketa, aurreko atalean aipatutako arrazoiak direla medio.

Are larriagoa da aldaketa gaur egungo testuinguruan. Espainiako Parlamentuak ukatu egin dio Ibarretxe Planari tramitera onartzea ere; horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak aurre egin behar lioke erabaki horri, eta egungo esparru juridikoa gainditzeko estrategia prestatu. Ordea, justu kontrako bidetik jo du enplegu-politikari dagokionez. Jarrera-aldaketak adierazten duenez, Autonomia Estatutuan finkatutako eskumenak babesteko ere ez da gai Eusko Jaurlaritza.

ELAren iritziz, oso larria da jokabide hori, eta sinesgarritasunik gabe uzten du Jaurlaritza autogobernuaren babesari dagokionez, baita Estatutuaren eskumenak babeste hutsari dagokionez ere.